- 4.- Basurde-ehizaren zenbait alderdiri eta ehizatzeko askotariko moduei buruzko irudipenak elkarri adierazi.
- 5.- Zaleetako bakoitzak sistema honetan gehien erabiltzen diren txakur-arrazak luze eta zabal ezagutzen lagundi, baita aldi berean lan-estilo desberdinak ezagutzen ere.
- 6.- Naturaren errespetu handiagoa lortu eta, beraz, eskaintzen dizkigun atseginak maitatzen eta behar bezala disfrutatzen ikasi.
- 7.- Proba hauen edukia eta garapena zaleei aditzera eman, baita proposatzen den araudia ere.

1. Artikulua. Probaren egitura

- 1.1. Erregelamendu hau aplika daiteke maila askotako txapelketetan (tokikoak, lurraldekoak, lehiaketak, erakustaldiak...).
- 1.2. Proba funtsean da basurdearen arrasto bat arrastoko txakurraren laguntzaz segitza, eta txakurra lotuta gidatu behar da nahitaez. Arrastoaren intentsitatea probako epaileek erabakiko dute.
- 1.3. Laneko proba honek bi fase dauzka (SAILKAPENA ETA FINALA) eta egun bat edo bitan egingo dira: lehenengoan, kanporaketa egingo da eta bigarrenean, berriz, finalisten behin betiko sailkapena erabakiko da.

2. Artikulua. Lehiatzeko baldintzak

- 2.1. Euskadiko txapelketan parte hartzeko, taldeak (ehiza-eraikitzaila – txakurra) lehenik sailkatuta edo aukeratuta behar du bere Lurraldeko Federazioan egindako probetan, bere Lurraldeko Federazioak probako egunerako zein Euskadiko txapelketa-egunerako ezarritako baldintza guztiak betez.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

2.2. Lehiakide-kopurua lehiaketaren oinarriek zehaztuko dute, eta hiru sailkatu izango dira lurrealdeko txapelketa bakoitzean, parte-hartzaile bat baino gehiago lurrealde bakoitzeko 5.000 federazio-lizentziaren moduluko.

2.3. Lehiakide bakoitza txakur batekin bakarrik eman dezake izena, betiere 3.1. artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuz. Gainera, animalia bakoitza ehiza-eraikitzale bakar baten lagun arituko da.

2. 4. Aurretiko izen-ematea behin eginda, ehiza-eraikitzalea ezingo du beste inork ordezkatu.

2. 5. Aurretiko izen-ematea behin eginda, talde bateko txakurra ezin du beste txakurrek ordezkatu, salbu eta 3.1. idatz-zatian adierazitako kasuan.

2. 6. Aurreko bi artikuluetan xedatutakoari uko egin gabe, ezinbesteko kasuan, antolatzailleek onar dezakete taldeko kide bakar bat ordezkatua izatea, betiere elkartzeko puntuau eta lehiaketa hasi baino lehen egiten bada.

2. 7. Aurreko idatz-zatia ez zaie aplikatzen ehiza-eraikitzaleei, baina bai txakurrei, aldez aurreko sailkapen baten bitartez lehiaketetan parte hartzen dutenak.

2. 8. Ezingo du parte hartu erakunde antolatzaillean, batera edo bestera, parte hartu edo laguntzaile ibiltzen den edozein pertsonak.

2. 9. Lehiatu ahal izateko, beharrezkoa da araudiak eskatzen duen edozein dokumentazio edukitzea, bai txakurrarena, bai ehiza-eraikitzalearenarena.

2.10. Elkartzeko puntuau zehaztutako orduan agertzen ez diren taldeek galdu egingo dute lehiatzeko eskubidea.

3. Artikulua. Salbuespenak

3.1. Baztertuta geratuko dira elkartzeko puntuau animaliei egin ahal zaien albaitari-azterketa pasatzen ez duten txakurak. Hala ere, ehiza-eraikitzaleak beste txakur bat baldin badauka, aldaketa hori onartu egingo da, betiere proba hasi baino lehen egiten bada.

3.2. Ez dira onartuko altan edo aspaldi haurdun dauden txakur-emeak, edo hoska egiten duten txakurak.

3.3. Ezingo dute parte hartu 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ehiza-eraikitzaleak.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

3.4 Arrastoko taldearen kide bat baztertuta, bestea ere bazter geratuko da, betiere 2.6 eta 3.1 artikuluetan aurreikusitakoa kontuan hartuz.

3.5. Ezingo da erabili zigor-lepokorik edo antzeko tresnarik.

4. Artikulua. Txandak eta ekintza-denborak

4.1. Lehiakideen parte-hartze ordena, edozein probatan, zozketa bidez esleituko da.

4.2 Epaileek ibilbide bat eskainiko diote parte-hartzaile bakoitzari. Ibilbide hori talde Lehiakidearen ezaugarri guztiak baloratzeko bezain zabala izango da. Arrastoak lehiaketa-esparrutik kanpora geratuz gero, lehiakidea erreserbako eremura eramango da bere ekintzarekin hor segi dezan.

4.3. Parte-hartzaileek ez dute eskubidea izango arrastoari lotzeko tartea edo puntuak; aldiz, epaileek erabakiko dute, 4.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

4.4. Antolakuntzak ez du zehazten ekintza-denbora bat,edo ibilbide jakin bat. Magnitude horiek "in situ" zehaztuko dituzte epaileek, talde bakoitzak irabazitako meritu-puntuak neurtuz eskuratutako lorpen-mailaren arabera. Hala ere, ahalegina egingo da albait zuzentasun handiena izateko.

5. Artikulua. Epaitzeko irizpideak

5.1. Basurde-arrasto batean neur daitezkeen parametroek, gehi arrastoaren baitan esku har dezaketen aldagaiek, oso askotariko pistak ematen dituzte: animalia berdina izanagatik, pistak erabat bestelakoak dira elkarrekin. Beraz, arrastoko taldeak oso moldakorra behar du, era askotako arrastoetara egokitzeko prest, sistemak ezagun duen lan-estiloa praktikan jarri.

Horrenbestez, ebaluazio-irizpide sinplifikatu batzuk ezarri behar dira, neurten laguntzeko txakurrak isurkinak atzemateko daukan benetako gaitasuna, baita ehiza-eraikitzaleak txakurra gobernatzenko daukana eta, laburbilduz, bien elkarlana.

Konplexutasun desberdineko hainbat probak osatzen duten lehiaketa da hau eta, horregatik, arrazoizkoa da proba bakoitzak bere puntuazio-eskala edukitzea eta epaitzeko irizpide bakoitzak dagokion koefizientea.

5.2. Epaitzeko irizpide horientzako oinarrizko puntuazio-eskala berdina da proba guztientzat, ondorengo baliokidetza-taularen arabera:



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

- Eskasa 0 puntu
- Ez-nahikoa 1 puntu
- Nahikoa 2 puntu
- Ondo 3 puntu
- Oso ondo 4 puntu
- Bikain 5 puntu

5.3. Txakurra epaitzeko irizpideak ondorengoak dira:

1. Perpendikularrean arrastoa atzematea.
2. Arrastoa adierazteko denbora.
3. Arrastoa jarraitzeko erraztasuna.
4. Ahotsa
5. Ahots-maiztasuna.
6. Arrastoa gehiegitan galtzea.
7. Arrastoari berriz heltzeko gaitasuna.
8. Abiadura.
9. Geldirik arrastoa adieraztea.
10. Arrastoari lotzea.
11. Arrasto erratua adieraztea.
12. Arrastoan ahotsa etetea.
13. Sokarekin hartutako jokaera.
14. Estiloa.
15. Gobernua.

5.3.1. Perpendikularren arrastoa atzematea gertatzen da txakurra basurde-arrastora perpendikularrean sartu, piezaren isurkinak detektatu, eta argi eta garbi adierazten duenean, bai ahotsez, bai noranzkoa aldatuz behar duen ibilbideari lotuz. Jakina, hemen erakusten du txakurrak bere usaimena, estiloa eta ehizarako grina. Beraz, usaina ez atzematea huts larritzat joko da. 0 ala 5 puntu emango dira (tartekorik ez dago).



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Ariketaren zati hau arrastora lehen aldiz sartzean baloratuko da, alegia, ekintzaren hasieran.
- b) Huts eginez gero eta epaileek lurrazala arrastorako egokia ez dela uste badute, bigarren aukera bat izango du lehiakideak.
- c) Testuinguru horretan, arrastoa ez da atzemantzat joko huts baten ondoren.

5. 3. 2. Txakur batek ondo atzeman dezake arrasto bat eta, aldiz, ahotsez edo jarreraz luze jo dezake adierazten duen arte. *Atzerapen* horri arrastoa detektatzeko txakurrak hartutako denboraren arabera emango zaizkio puntuak. Gutxi gorabehera, ondorengo baliokidetza-taula hartuko da kontuan:

<input type="checkbox"/> 0-5 segundo:	5 puntu
<input type="checkbox"/> 6-10 segundo:	4 puntu
<input type="checkbox"/> 11-15 segundo:	3 puntu
<input type="checkbox"/> 16-20 segundo:	2 puntu
<input type="checkbox"/> 21-25 segundo:	1 puntu
<input type="checkbox"/> 30 segundotik gora:	0 puntu

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Puntu honetako kalifikazioa lehenengoz arrastoa atzematean esleituko da eta ez, gero, hutsarteen ondoren arrastoari berriz lotzean. Azken honi 5.4.7 artikuluan zehaztutako meritu-puntuau emango zaizkio puntuak (arrastoari berriz heltzea).
- b) Baldin eta txakurrak, behin pista harrapatuta, arrazoizko denbora batean, arrastoa atzematen ez badu (bi minuto gutxi gorabehera) eta, epaileek hala iritzita, erabateko nagikeriatzat joko da, eta nahitaez aplikatuko da 6.1 artikuluan ezarritakoa.

5.3.3. **Arrastoa segitzeko erraztasuna** esaten zaio txakur batek eten handirik gabe basurdeen pausoak segitzeko daukan ahalmenari, bere jardunean baliatu



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

dituen forma, estilo, ahots, abiadura edo beste edozein bertute kontuan hartu gabe.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Pistari segika denbora eta abiadura irabazteko bidezidor bat hartea, arrasto-galeratzat joko da, eta ez arrastoa segitzea.
- b) Txakurra banderatxorantz edo erreferentzia-markarantz zuzentzera behartzea, era horretan arrastoaren gaineko lana baztertuz, ez da arrastoaren segimendutzat joko.
- c) Epaileek kontuan hartuko dute sasiek, bidexkek eta abarrek eman dezaketen erraztasuna, baita kontrako aldean beste lurrazal batzuek daukaten zailtasuna ere.

5. 3. 4. Txakurraren **ahotsak** ozena eta kementsua behar du (inoiz ez belarirako desatsegin) eta, batez ere, adierazgarria. Arraza bakotzak bere ahots ezaguna daukanez (tinbre eta tono desberdinakoak), batez ere bolumena baloratuko da.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Irizpide hori arrastoaren gainean baloratuko da beti.

5. 3. 5. **Ahots-maiztasuna** deitzen zaio txakur batek arrastoaren gainean egiten duen zaunka-kopuruari, arrastoari segika daukan ohiko abiaduraren aldean.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Mendi motak (landarediak) nabarmen eragiten du piztiak utzitako arrastoan eta, beraz, baita txakurrak atzemandako isurkinetan. Beraz, txakurrak ahots-maiztasuna alda dezake bere jardunean.
- b) Bere ahots-maiztasuna gehitzeko, ehiza-eraikitzaileak txakurra expresuki gelditzen duenean, ez zaio horri punturik emango eta, aldiz, kaltegarria gerta daiteke 5.4.8 artikuluan ezarritako epaitzeko irizpiderako balorazioan (abiadura). Dena den, arrastoaren hasierako tartean onartzen da txakurra geldiaraztea, txakurra kontzentra dadin eta isurkina behar bezala adieraz dezan. Era berean, onartu egiten da txakurrari eustea, neurrian betiere, intentsitate txikiko arrastoetan.
- c) Proban, ahots-maiztasuna gutxitzen duen txakurrari puntu gutxiago emango zaizkio.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

5.3.6. Piztiak lurrazalean marrazten dituen irudiak edo begiztak direla eta, ezin bestean **hutsarteak (faltak)** gertatzen dira. Aldiz, txakur ernea zorrotza eta adimentsua izango da horiek konpontzeko orduan, abiapuntukoarekin jira zentrokideetan arituz. Aldiz, txakur hori bera neurrigabe eta arrazoi gabe tematu daiteke tarte jakin batean eta, orduan, ehiza-eraikitzailak esku hartuko du. Era horretan tematuz, jaitsi egingo du irizpide horretako puntuazioa.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Txakurra hutsarteetan ehiza-eraikitzailaren aginduz erori edo gelditzen bada, zigorra ez da txakurrentzat izango; aldiz, ekintza kaltegarria izango da 5.5.2 artikuluan adierazitako irizpideari nota esleitzeko orduan (ehiza-eraikitzailaren lana eta estiloa).
- b) Azken proban eta apartekoan, arrastoak intentsitate gutxikoak badira, hutsarteetan gehiago tematzea onartuko da.

5.3.7. Esan daiteke **arrastoari berriz heltzeko gaitasuna** dela txakurrak galduzko arrastoa albait lasterren berriz aurkitzeko daukan ahalmena. Argi dago bertute hori izateko txakurrak behar duela berezko adimena eta ehiza-eraikitzailaren heziketa.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Baldin eta bidean dela txakurrak arrastoa galtzen badu, erabateko galeratzat jotzen da epaileek aldez aurretik finkatutako denbora igaro ondoren. Denbora hori luzeagoa izango da azken fasean eta aparteko probetan.
- b) Baldin eta arrastoa segitzen duen taldeak huts bat konpontzeko etorritako bidetik atzera egin beharko balu, ez da denbora jakin bat ezarriko eta, aldiz, epaileek erabakiko dute Lehiakidearen jarduna noiz bukatu; hala ere, galduzko arrastoa atzemateko aukera emango da.
- c) Arrasto-hutsarteetan behin eta berriz eroriz gero, ez dago zigor berezirik, baina kaltegarria da 5.4.3 artikuluan eta 5.4.10 artikuluan ezarritako epaitzeko irizpidea kalfifikatzeko (**arrasto segitzeko erraztasuna eta arrastoari lotzea**).
- e) Baldin eta txakurrak arrastoari berriz heldu eta aztarna alderantzik segitzen badu, horrek ez du nota jaitsiko irizpide horretan, baina kaltegarria da 5.5.2 artikuluan ezarritakoan (**ehiza-eraikitzailaren lana eta estiloa**).
- f) Baldin eta taldeak, aurkitutako zailtasunak direla eta, arrasto gabeko tartea utzi behar badu, gehienez 15 metroko zirkulu-erradio batean moztu daiteke bidea, eta arrastoari berriz heltzeak ez du irizpide honetan esleitutako nota aldatzen, ez partzialki eta ez guztira.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

- g) Arrastoari segika batere hutsarterik gertatuko ez balitz, txakurrak nota handiena eskuratuko du irizpide honetan (5 puntu).
- h) Gaitasun hau ebaluatzeko orduan, ingurune horretako landaredia kontuan hartuko da, baita bertan arrastoari eragiten dioten (zioten) eguraldi-eragileak ere.
- i) Epaileek dagokion probaren ezaugarriak hartuko dituzte kontuan, baita lurrazal horrek dauzkan zaitasun edo erraztasunak ere.

5.3.8. **Abiadura** da txakurrak eta ehiza-eraikitzaleak ibilitako bidearen eta emandako denboraren arteko erlazioa.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Kontzeptu honen balorazioa, betiere, txakurra arrastoari segika bidean dela egingo da, eta inoiz ez bidezidorretan, bide-etenetan, hutsarteetan eta abarretan.
- b) Lurrazala alda daitekeenez gero (gorabehera, landaredia, etab.), ibilbidean zehar, abiadura ibilbide osoko batezbestekoaren arabera kalifikatuko da, eta ez tarte jakin batean ikusitakoaren arabera.
- c) Ez dute puntu kaltegarrik jasoko abiadura txikia erakusten duten txakurrek, adituen arabera arraza horrek berezkoa badu.
- d) Lehiakideek gogoan izan behar dute txakurra ohí duen baino azkarrago eramanez gero, txakurrak ahots-maiztasuna gutxitu dezakeela, baita 5.3.12 artikuluan ezarritako zigorra ere (**arrastoan ahotsa etetea**).

5.3.9. **Geldirik arrastoa adieraztea** lehiaketa honetan har daiteke San Huberto modalitateko “erakusketa” bezalako ekintza bat, baina piztia aurrean ez dela. Arrastoaren gainean taldea nahitaez gelditzeko unea da, epaileak hala aginduta. Txakurrak paua egiten duen bitartean, txakurrak ahots-erritmoa areagotu egin behar du, etengabe pistaren noranzkoa adieraziz eta ia guztiz geldi geratuta. Behar bezala egiteko, 5 segundotik gora egon behar da hasieratik; bestela, epaitzeko irizpide honi dagokion gutxienezko nota emango zaio (0). Denbora horretatik aurrera, ondorengo baliokidetza-taularen arabera neurituko da:

- | | |
|--|---------|
| <input type="checkbox"/> De 6-10 segundo | 1 puntu |
| <input type="checkbox"/> 11-15 segundo | 2 puntu |
| <input type="checkbox"/> 16-20 segundo | 3 puntu |
| <input type="checkbox"/> 21-25 segundo | 4 puntu |



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

26-30 segundo 5 puntu

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Bigarren faseko probetan, ahotsa gutxiago erabiltzea onartuko da lehenengo fasearen aldean, baina arrastoa geldirik behin adierazita mugikortasun berdina eskatuko da.
- b) Puntuak esleitzeko orduan, epaileek gelditzeko tokia kontuan hartuko dute, baita probaren berezko ezaugarriak ere; horren arabera, txakurra geldirik eusteari buruz epaileak barkaberagoak izan daitezke.
- c) Arrastoari segika erakutsitakoaren aldean, ahots-maiztasuna mantendu edo gutxitzen duten txakurrei puntu bat kenduko zaie.
- d) Geldirik daudela arrastoa ahotsez adierazten ez duten txakurrei irizpide honetan lortutako puntuen % 50 kenduko zaie (**txakur mutuak**).
- e) Ariketaren zati honetan, ez da indarrean izango 5.3.13 idatz-zatian zehaztutakoa (**sokarekin hartutako joera**).

5.3.10. Arrastoari lotzea esaten zaio arrastoko txakurrak usain-markak miatzeari utzi gabe basurdearen pistak segitzeko daukan gaitasunari. Bertute hori arrastoko txakur onek daukate eta badu bere garrantzia, batez ere arrastoak hotzean segitzen direnean, gutxitzen dituelako txakurra beste isurkinei heltzeko edo noizbehinka edo erabat arrastoan huts egiteko aukerak.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Ez da arrastoari lotzen huts egitea txakur bat hutsarte batean, bila ari dela, arrastotik desbideratzen bada.
- b) Arrastoari gehiegi lotzen zaizkion txakurrek abiadura galtzen dute eta, ondorioz, notarako kaltegarria izango da irizpide honetan, baina jakina, ez lehenengoan.
- c) Epaileek lurrazalaren egoera, baita proba bakoitzaren berezko ezaugarriak ere, kontuan hartuko dituzte epaitzeko irizpide hau baloratzen den tokian.

5.3.11. Arrastoko txakur onak nahiko oldarkorrak izaten dira, eta behar bezala hezten ez badira ehiza-eraikitzailea engainatzera hel daitezke. Gure ustez, ahotsa da txakurrak jabeari mezuak adierazteko bitarteko onena, eta jabea berehala interpretatzen saiatuko da. Hala ere, heziketa-gabezia dela eta,



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

txakurrak arrastoari gaizki lotu dakioke eta, kasu batzuetan, arrastoa adierazten du ahoz, usain-partikulak faltatu arren. Ahozko adierazpen *faltsu* horri egiten duen erregulartasunaren arabera emango zaizkio puntuak, eta ez da kontuan hartuko ahotsaren maiztasuna.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Kontzeptu honek erlazioa dauka 5.3.10 idatz-zatian ezarritako epaitzeko irizpidearekin (*arrastoari lotzea*), eta badu eraginik bere puntuaketan. Hala ere, gogoan izan behar da badirela batzuetan arrastoari lotzen ez zaizkion txakurrak eta, hargatik, ez daudela artikulu honetan zigortuta.
- b) Hutsarteetan eta arrastoari berriz heldu arte, txakurrak ez du ahozko adierazpenik egingo. Arrasto-intentsitate altuko probetan, onartu egingo dira adierazpen faltsu arinak, baina hutsarteetan soilik.
- c) Ahozko adierazpen argi eta garbi bat hutsarte batean, arrasto faltsua adieraztea jotzen da". Irizpide hori ezin da nahastu txakurrak hutsarte batean egin ditzakeen zaunka adierazgarri batzuekin (zalantza, haserrea, etab.).

5.3.12. Lehenago, ahozko adierazpenarekin edo gabe, txakur batek arrastotik desbideratzeko aukera kontuan hartzen zen (*arrastoari ez lotzea*), baina kontrakoa ere gerta daiteke: txakurrak arrastoari segika zehaztasuna ez galtzea, baina denbora edo ibilbide-tarte batez *ahotsez adierazteari uztea*. Tartekako isilune horiei arrastoaren gainean ahots-isiluneak adierazten duten kopuruaren arabera emango zaizkie puntuak (bost puntu esleituko zaizkio arrastoan ahots-isilune bat ere ez daukan txakurrari).

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Epaileek egiaztatu egin behar dute adierazpeneko isilune bat dela, eta ez arrastoko hutsarte bat.
- b) Epaileek lurrazalaren egoera hartuko dute kontuan ahots-isiluneak agertzen diren tokian, baita bilatutako arrastoaren intentsitatea ere.
- c) Ahotsa isiltzea onartu egiten da errepideak, pistak, suebakiak eta abar zeharkatzean, eta beharrezko da guztiz isiltzea 4.2 artikuluan zehaztutako kasuan; bestela, zigorra ezarriko da 5.3.11 artikulua arabera (*arrasto faltsua adieraztea*).
- d) Txakur mutuei puntuazio gutxiena emango zaie.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKALDUNA

5.3.13. Txakurrak arrastoari lotzeko gaitasun handia izan dezake, abiadura egokia emanez eta, hala ere, tarteka, mugimendu trakets eta alferrikako batzuk egitea (*dantza*), 5.3.11 artikuluan ezarritako hutsarekin ezer ikustekorik izan gabe (*arrasto falso adieraztea*). Hala ere, “dantza” hori ez da ona eta txakurrak beste arrasto batzuei hel diezaieke, edo arrastoa galdu. Badira ere heziketa eskasa duten txakurrak eta, ondorioz, arrastoa segitzean, gehiegizko tentsioa eragiten dute *sokan*, ehiza-eraikitzailea arrastatzen saiatuz. Agerikoa da horrelako txakurrek ahalegin fisiko handia egiten dutela eta, zalantzarak gabe, luze gabe akitu egingo dira eta, ondorioz, pista galdu.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Txakurrek askotariko arrazoia dituzte “dantatzeko”, intentsitate altuko zein baxuko arrastoetan; hala ere, bigarrenetan eragin ohi ditu kalte gehien huts horrek. Horregatik, lehenengoetan, dantza onartu egiten da neurri batean.
- b) Epaileen iritziz, “dantza” ehiza-eraikitzailearen aginduz egiten bada, txakurrak ez du batere zigorrik jasoko, baina bai eragina izango du 5.4.2 artikuluan ezarritako epaitzeko irizpidearen notan (*ehiza-eraikitzailearen lana eta nota*).
- c) Ekintza zentrokidea, hutsarte batean txakurrak marrazten dituen iskinak edo begiztak, ez da sokaren “dantza”tzat jotzen.
- d) Intentsitate altuko arrastoetan, soka apur bat tenkatzea onartuko da.
- e) Era berean, tentsio handiagoa onartu behar da ehiza-eraikitzaileak oztoporen bat gainditzeko txakurrak hartzen duen abiadurari eutsiko badio.

5.3.14. Txakurraren *estilo* hartzen da lana egiten txakurrak erakusten duen itxura fisiologikoa eta psikikoa, ibilera, buruaren jarrera, hutsarteetan lan egiteko metodoa, argitasuna, etab.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Txakurrak lan-estilo berdina gorde behar du proba guztietan, baina ulertzeko da bere bulkadak aldatzea arrastoaren intentsitatearen arabera.
- b) Logikoa denez, ezin da zigortu arrazak berezkoa duen jokabidea.

5.3.15. Arrastoko txakurrak *gobernatzeko oso erraza* behar du, ehiza-eraikitzailearen aginduen oso esanekoa izatea: bidexkak egoki kontrolatzea, hutsarteetan begiztak, bilaketen erregulartasuna etab.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Txakurrak gobernatzeko erraztasun berdina agertu behar du proba guztietai.

5. 4. Ehiza-eraikitzaiareni buruz epaitzeko irizpideak:

16. Heziketa eta kirol-gogoa
17. Ehiza-eraikitzaiaren lana eta estiloa
18. Kohesioa

5.4.1. **Heziketa eta kirol-gogotzat** jotzen da ehiza-eraikitzaiak bere jardunean agertutako jokaera.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Jardunean, lehiakidea ezingo zaio jendeari edo antolatzaileei zuzendu; hala ere, epaileen presentzia eska dezake arreta eman dion zerbait haiei adierazteko.
- b) Lehiakideak txakurrari ematen dion tratua kontuan hartuko da, eta huts larria izango da sokatik tiratzen ibiltzea, martxa azkartzeko hanketan ostikatzea, edo beste edozein modutan zigortu edo xaxatzea.
- c) Ehiza-eraikitzaiak ofizioan erabiltzen den hizkera zabal eta anitzean anima dezake txakurra, baina inoiz ez irainka edo behar ez hitzak baliatuz.

5.4.2. Ehiza-eraikitzaiak ez da elementu geldo bat txakur batek arrastatua; aldiz, arrasto-taldeko kide bat gehiago da; horregatik, dagozkion ekintzetan parte hartu behar du: behar diren aginduak ematea, arrastoaren kontra pista ez segitzen saiatzea, arrastoa argitzen txakurrari laguntzea, etorritako bidetik bueltatzea, hutsarteetan gehiegi tematzen bada behar bezala jokatzea, etab.

Eragiketa horiek guztiak **estiloz** egin behar dira, batez ere txakurra gobernatzen, horrek lagundi egiten baitu txakurrak jokabide ona edukitzen eta, beraz, baita bere hezibide egokian. Estilo desegokiak lan deserosoak, nekea, arrastoan aspertzea edo pista galtzeko arrazoi izan daitekeen beste edozein faktore eragin dezake.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Epaileek kontuan hartuko dute ehiza-eraikitzaiaren arrazoi gabeko egoskorkeria edo tema; izan ere, askotan, eragotzi egiten du txakurraren lan-askatasuna.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

- b) Teknika hau praktikatzen den tokiko landarediaren arabera eta ekintzaren erosotasuna kontuan hartuz, aholkatzen da arrasto-lana modu eraginkorrean egiteko balio duen luzera daukan soka bat edukitzea. 6 metroko soka aholkatzen da, ehiza-eraikitzaileak bere eskuaren eta txakurraren artean 4 metro uzten dituela, txakurrik bere arrasto-lanaren nolakotasunak askatasun handiagoz erakuts ditzan.
- c) Epaileek kontuan hartuko dute ehiza-eraikitzailea soka erabiltzen nola moldatzen den eta, txakurraren lana errazte aldera, baita soka arrasto-lepokoari edo arnesari lotuta jartzeko era ere.
- d) Ehiza-eraikitzaileak ezingo du soka utzi, salbu eta beharrezkoa denean (sasiak zeharkatzea, hesiak, etab.).
- e) Halaber, ehiza-eraikitzaileak daraman janzkera kontuan hartuko da, baina eredu jakin bat ezartzeko asmorik gabe; ariketaren baldintzekin bat eterri behar da besterik ez eta, era horretan, ehiza-eraikitzailearen, txakurraren eta, beraz, taldearen lana erratzuko du.
- f) Ehiza-eraikitzaileak ez du zertan lan-estilo berdina erakutsi proba guztietai.

5.4.3. Arrastoa segitzen duen taldea ez da bi kideren nahasketa hutsa, baizik eta txakurraren eta ehiza-eraikitzailearen arteko batasun harmonikoa, eta alderantziz; bien arteko elkar-ulertzea (*kohesioa*) bakarrik lortzen da ariketa praktikoen gainean lan intentsiboa eginez. Horrenbestez, behin ekintzan, biek beren mugimenduen arteko sinkronizazio zehatza zainduko dute, eta batasun hori ez da bakarrik fisikoa izango (sokaren bitartez), baita psikikoa ere, eta hori jardun osoan geratuko da agerian, eta batez ere hutsarteetan. Beraz, neur daiteke ere taldeak maniobratzeko daukan gaitasunean.

Ondorengoa hartu behar da kontuan:

- a) Meritu-puntu hau ez da nahastu behar txakurra gobernatzearekin (obeditzea eta esanekoa izatea), baina badu loturarik noski.

6. Artikulua. Bazterketa

6.1. Automatikoki geratuko da baztertuta basurdearen arrastoaren gainean, edozein proba-fasetan dela, erabat nagi agertzen den txakurra, eta ezingo da bigarren fasera pasa.

6.2. Ez da baztertzeko arrazoi izango 5.3 eta 5.4 artikuluetan ezarritako epaitzeko irizpideetan "0" kalifikazioa lortzea.

JULIÁN GAYARRE, Nº 48 LONJA - 48004 BILBAO – CIF: G48261465

TLF.: 94 473 50 06 FAX: 94 459 81 19

fvcaza@euskaltel.net



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

6.3. Lehenengo fasearen amaieran Antolakuntzak lehiaketa baino lehen ezarritako lehen postuetan sartzen ez diren lehiakideak ezingo dira pasa bigarren fasera eta, beraz, bazter geratuko dira. Hurrengo fasean parte hartzeko azken postuan berdinketa egongo balitz, ez da 8.5 eta 8.6 artikuluetan xedatutakoa aplikatuko eta, beraz, aurrera jarraituko dute egoera horretan geratutako guztiak.

7. Artikulua. Deskalifikazioak

7.1. Lehiakide bat erregelamendu honetan ezarritako arauei lotzen ez zaienean, epaileek haien ekintza-txanda eten dezakete eta, hala baderitzote, deskalifikatu.

7.2. Era berean, deskalifikazioa emango zaio 5.4.1 artikuluko a. idatz-zatian (heziketa eta kirol-gogoa) zehaztutako faltarik behin eta berriz egiten duen lehiakideari, edo bere jardunean 3. artikuluan (salbuespenak) aipatutako anomalia bat ikusten bada.

7.3. Arrastoko taldearen lehiakideetako bat deskalifikatuta geratuz gero, bestea ere kanpora geratuko da eta, horrenbestez, talde horrek proba utzi behar du behin betiko, eta biek ere ezingo dute hurrengo faseetan parte hartu.

8. Artikulua. Azken kalifikazioa

8.1. Parte-hartzaile bakoitzaren azken puntuazioa azken faseko atal bakoitzean lortutako puntuen batuketa eginez lortzen da; beraz, ez zaio gehituko batuketa horri lehenengoan eskuratutakoa. Sailkapenaren ordena lehiakide bakoitzak azken fasean eskuratutako puntuazioak emango du.

8.2. 1.6 artikuluan zehaztutako kasuan, ariketaren puntuazioak adieraziko du sailkapen-ordena dagokion mailaraino.

8.3. Aparteko ariketan berdinketa gertatzen bada, txartelean adierazitako puntuazioa hartuko da kontuan, beheranzko ordenan, alegia, lehenengo 1. atalean eskuratutako puntuazioarierreparatuko zaio, gero 2. atalekoari eta, horrela, hurrenez hurren, berdinketa konpondu arte.

8.4. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatu ondoren, beste berdinketa bat gertatzen bada, lehentasuna izango du bere arrazaren mailara gehien hurbiltzen zaion txakurra daukan parte-hartzailea.

8.5. 1. faseko (**sailkatzekoa**) eta 2. faseko (**finala**) bigarren eta maila beheragoko gainontzekoetan gertatutako berdinketak konpontzeko, kasu egingo zaio txartelean adierazitako puntuazioari, goranzko ordenan.



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

8.6. Aurreko artikuluan ezarritako aplikatu ondoren, beste berdinketa bat gertatzen bada, lehendabizi geratuko da bere arrazaren mailara gehien hurbiltzen zaion txakurra daukan parte-hartzailea.

8.7. Guztizko ebaluazioan, ez da *ex aequo* kalifikaziorik egingo (berdinketa).

8.8. Lehiaketa ofizialetan parte hartu eta azken fasean lehenengo bosten artean sailkatutako txakurrek ondorengo aipamenak izango dituzte:

AIPAMENA	PUNTUAK
Bikain	270 - 300
Oso ondo	210 - 269
Ondo	150 - 209
Ez-nahikoa	< 150

8.9. Espainiako Ehiza Federazioak esleitutako aipamenen erregistro bat gordeko du, baita Espainiako txapeldunena ere.

9. Artikulua. Erreklamazioak

9.1. Erreklamazio posibleak idatziz adieraziko zaizkio Lehiaketa Batzordeari proba bakoitza bukatu ondorengo ordu laurdenean.

Erreklamazioek oinarri hauek izan ditzakete:

- Erregelamendu honetan ezarritako arauak gaizki aplikatu direla.
- Epaitzeko irizpideak gaizki aplikatu direla.
- Proba egiteko lurrazala desegokia zela.
- Zuzentasunik ez dela izan.
- Beste arrazoi batzuk.

9.2. Lehiakide bakoitzak puntuazioak behin jasota, ezingo zaie erreklamaziorik jarri eta, beraz, zenbaketa-errore bat izan ezean, ezin dira apelatu.

10. Artikulua. Aktak

10.1. Lehiaketaren amaieran, akta bat igorriko da eta, bertan, parte-hartzaile guztien izenak zerrendatuko dira, probak amaitu edo ez, baita horietako bakoitzean lortutako emaitzak ere eta, dagokionean, azken kalifikazioa. Gainera, lehiaketaren garapenean izandako lehiakideei buruzko edozein



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

gorabeheraren berri ere emango du. Dokumentu horrek Lehiaketa Batzordearen eta dagozkion epaileen sinadura fede-emaileak izango ditu.

10.2. Aktek, gainera, txakurrei buruzko aipamenen berri emango dute.

11. Artikulua. Epaileak

11.1. Ehiza Federakuntzek honelako lehiaketetan esperientzia daukaten pertsonak gaituko dituzte arbitraje-ikastaroak egiten ez diren bitartean.

Epaileen eginkizunak izango dira:

- a) Erregelamendu hau txapelketan aplikatzea.
- b) basurdeen arrastoa egiteko modua erabakitzea, baita proben ibilbidea ere.
- c) Lehiakide bakoitzaren jarduna puntuatzeko propio araututako txartela ontzea.
- d) proba bakoitzaren amaieran dagozkion puntuazioak adierazten dituzten txartelak Ordezkari Teknikoari ematea.
- e) txapelketako aktak ontzen laguntza.

12. Artikulua. Lehiaketa Batzordea

12.1. Ehiza-federazioetako ordezkariek edo horiek eskuordetu dituzten pertsonek eta ordezkari teknikoak osatuko dute, eta federazioko ordezkaria izango du presidente.

12.2. Lehiaketa Batzordeak ondorengo eginkizunak izango ditu:

- a) Probari edo txapelketari buruzko gorabeherak aztertu eta konpontzea.
- b) Berehala, deliberazio sekretuan, idatziz helarazi zaizkion erreklamazioak konpontzea; bere epaia ezin da apelatu.
- c) Txapelketako aktak ontzea.

13. Artikulua. Ordezkari teknikoak

13.1. Lehiaketa Batzordeak Ordezkari Tekniko bat izendatuko du bere kideen artean, eta ardura hori bati egokituko zaio arrastoko txakur lotuen praktikan eskamentua daukan pertsona bati, probak egingo diren tokia eta erregelamendu hau ezagutzen duenari.

Ordezkari Teknikoak ondorengo eginkizunak izango ditu:



FEDERACION DE CAZA DE EUSKADI

- a) Ezarritako arauak betetzen direla segurtatzea.
- b) Ariketa bakoitza behar bezala egiten dela kontrolatzea.
- c) Lehen instantzian, egin daitezkeen erreklamazioei buruz erabakitzea.
- d) Indarrean den Lehiaketa Batzordearekin lankidetzan aritzea.
- e) Probei buruzko edozein gairen berri lehiakideei ematea.
- f) Epaileei laguntzea.

14. Artikulua. Ikusleak

14. 1. Lehiaketara joaten diren pertsonak saiatuko dira proben garapenean trabarik ez egiten eta, ahal den neurrian, behar bezala akreditatutako laguntzaileen eta antolatzailleen jarrabideak beteko dituzte.

14.2. Ikusleen arteko pertsonek ezin dute garris egin edo Lehiakideei deitu lanean dabiltsan bitartean, ezta Lehiakideen jardunari buruzko tokiz kanpoko iritzirik bota ere.

14.3. Aurreko puntuak hausten dituztenak lehiaketa-eremutik urrunduak izango dira.

15. Artikulua. Azken xedapena

15.1. Espainiako Ehiza Federazioak Erregelamendu honetako alderdiren bat aldatzeko eskubidea du, betiere probak hobeto egiteko beharrezkotzat jotzen baldin badu.



**FEDERACION DE CAZA
DE EUSKADI**

ARRASTOKO TXAKUR LOTUEN PROBAK (BASURDE MODALITATEA)

PROBA: A

Lehiakidea: _____ Zk: _____

Txakurra:

EPAITZEKO IRIZPIDEAK

TXAKURRARI BURUZ	Kontzeptua	Nota					Koef.	Punt.
	1 Perpendikularren arrastoa atzematea	5				0	x 6	
	2 Arrastoa adierazteko denbora	5	4	3	2	1	0	x 4
	3 Arrastoa jarraitzeko erraztasuna	5	4	3	2	1	0	x 5
	4 Ahotsa	5	4	3	2	1	0	x 3
	5 Ahots-maitasuna	5	4	3	2	1	0	x 2
	6 Arrastoa gehiegitan galtzea	5	4	3	2	1	0	x 3
	7 Arrastoari berriz lotzea	5	4	3	2	1	0	x 4
	8 Abiadura	5	4	3	2	1	0	x 3
	9 Geldirik arrastoa adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 2
	10 Arrastoari lotzea	5	4	3	2	1	0	x 2
	11 Arrasto erratua adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 4
	12 Arrastoan ahotsa etetea	5	4	3	2	1	0	x 2
	13 Lokarriekin hartutako jokaera	5	4	3	2	1	0	x 2
	14 Estiloa	5	4	3	2	1	0	x 3
	15 Gobernua	5	4	3	2	1	0	x 2
EHIZA ERAKIT	16 Heziketa eta kirol-gogoa	5	4	3	2	1	0	x 3
	17 Lana eta estiloa	5	4	3	2	1	0	x 2
	18 Kohesioa	5	4	3	2	1	0	x 2
GUZTIRA								

EPAILE – ARBITROAREN SINADURA

Oharrak atzealdean

JULIÁN GAYARRE, Nº 48 LONJA - 48004 BILBAO - CIF: G48261465

TLF.: 94 473 50 06 FAX: 94 459 81 19

fvcaza@euskaltel.net



**FEDERACION DE CAZA
DE EUSKADI**

ARRASTOKO TXAKUR LOTUEN PROBAK (BASURDE MODALITATEA)

PROBA: B

Lehiakidea: _____ Zk: _____

Txakurra:

EPAITZEKO IRIZPIDEAK

TXAKURRARI BURUZ	Kontzeptua	Nota						Koef.	Punt.
		5	4	3	2	1	0		
1	Perpendikularren arrastoa atzematea	5					0	x 6	
2	Arrastoa adierazteko denbora	5	4	3	2	1	0	x 4	
3	Arrastoa jarraitzeko erraztasuna	5	4	3	2	1	0	x 6	
4	Ahotsa	5	4	3	2	1	0	x 3	
5	Ahots-maiztasuna	5	4	3	2	1	0	x 2	
6	Arrastoa gehiegitan galtzea	5	4	3	2	1	0	x 3	
7	Arrastoari berriz lotzea	5	4	3	2	1	0	x 4	
8	Abiadura	5	4	3	2	1	0	x 3	
9	Geldirik arrastoa adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 3	
10	Arrastoari lotzea	5	4	3	2	1	0	x 2	
11	Arrasto erratua adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 4	
12	Arrastoan ahotsa etetea	5	4	3	2	1	0	x 2	
13	Lokarriekin hartutako jokaera	5	4	3	2	1	0	x 3	
14	Estiloa	5	4	3	2	1	0	x 3	
15	Gobernua	5	4	3	2	1	0	x 3	
EHIZA ERAIKIT	16 Heziketa eta kirol-gogoa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	17 Lana eta estiloa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	18 Kohesioa	5	4	3	2	1	0	x 3	
GUZTIRA									

EPAILE – ARBITROAREN SINADURA

Oharrak atzealdean

JULIÁN GAYARRE, Nº 48 LONJA - 48004 BILBAO - CIF: G48261465

TLF.: 94 473 50 06 FAX: 94 459 81 19

fvcaza@euskaltel.net



**FEDERACION DE CAZA
DE EUSKADI**

ARRASTOKO TXAKUR LOTUEN PROBAK (BASURDE MODALITATEA)

PROBA: B

Lehiakidea: _____ **Zk:** _____

Txakurra:

EPAITZEKO IRIZPIDEAK

	Kontzeptua	Nota					Koef.	Punt.	
TXAKURRARI BURUZ	1 Perpendikularren arrastoa atzematea	5				0	x 6		
	2 Arrastoa adierazteko denbora	5	4	3	2	1	0	x 4	
	3 Arrastoa jarraitzeko erraztasuna	5	4	3	2	1	0	x 6	
	4 Ahotsa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	5 Ahots-maiztasuna	5	4	3	2	1	0	x 2	
	6 Arrastoa gehiegitan galtzea	5	4	3	2	1	0	x 3	
	7 Arrastoari berriz lotzea	5	4	3	2	1	0	x 4	
	8 Abiadura	5	4	3	2	1	0	x 3	
	9 Geldirik arrastoa adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 3	
	10 Arrastoari lotzea	5	4	3	2	1	0	x 2	
	11 Arrasto erratua adieraztea	5	4	3	2	1	0	x 4	
	12 Arrastoan ahotsa etetea	5	4	3	2	1	0	x 2	
	13 Lokarriekin hartutako jokaera	5	4	3	2	1	0	x 3	
	14 Estiloa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	15 Gobernua	5	4	3	2	1	0	x 3	
EHIZA ERAIKIT	16 Heziketa eta kirol-gogoa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	17 Lana eta estiloa	5	4	3	2	1	0	x 3	
	18 Kohesioa	5	4	3	2	1	0	x 3	
GUZTIRA									

EPAILE – ARBITROAREN SINADURA

Bikain 270 – 300

Oso ondo 210 – 269

Ondo 150 – 209

Ez-nahikoa < 150

Oharrak atzealdean

JULIÁN GAYARRE, Nº 48 LONJA - 48004 BILBAO - CIF: G48261465

TLF.: 94 473 50 06 FAX: 94 459 81 19

fvcaza@euskaltel.net



**FEDERACION DE CAZA
DE EUSKADI**

ONARPEN DILIGENTZIA

Araudi hau Euskadiko Ehiza Federakuntzaren batzarrak onartu du Oiartzunen 2015eko Ekainaren 25(e)an.

PRESIDENTEA

ZIGILUA



IDAZKARIA